

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko urtarrilaren 30etik otsailaren 5erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/01/30

• BARNE MINISTERIOA.

- **Mugak.** - INT/68/2021 Agindua, urtarrilaren 29koa, Portugaleko lurreko barne-mugan kontrolak berrezartzen dituen, COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoera dela-eta. **2021-1346 xedapena - 2 or.**
- **Zirkulazioa. Neurri bereziak.** - Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 25koa, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarena, 2021. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen. **2021-1347 xedapena - 62 or.**

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Ezohiko neurriak.** - PCM/69/2021 Agindua, urtarrilaren 28koa, Ministroen Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 26ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, hirugarren aldiz luzatzen da Ministroen Kontseiluaren 2020ko abenduaren 22ko Erabakia, COVID-19aren hedatzea eta kutsatzea eragozteko ezohiko neurriak ezartzen dituen, Erresuma Batuen eta Espainiako aireportu eta portuetako hegaldi zuzenak eta bidaiarien ontziak mugatuta. **2021-1348 xedapena - 2 or.**

• GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. -

- **Kontabilitate Plan Orokorra.** - 1/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa, honako hauek aldatzen dituen: azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra; azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onetsitako Enpresa txiki eta ertainentzako Kontabilitate Plan Orokorra; irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak onetsitako Urteko kontu bateratuak egiteko arauak; eta urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak. **2021-1350 xedapena - 83 or.**

- **Kontu Ikuskaritza. Araudia.** - 2/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa, Kontu Ikuskaritzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea garatzeko Erregelamendua onesten dueña. **2021-1351 xedapena - 100 or.**
- **ESPAINIAKO BANKUA. – Kreditu eta finantza entitateak.** - 1/2021 Zirkularra, urtarrilaren 28koa, Espainiako Bankuarena, honako zirkular hauek aldatzen dituen: 1/2013 Zirkularra, maiatzaren 24koa, Arriskuen Informazio Zentralari buruzkoa, eta 5/2012 Zirkularra, ekainaren 27koa, kreditu-erakundeei eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei zuzendua, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean izan beharreko erantzukizunari buruzkoa. **2021-1352 xedapena - 112 or.**

2021/02/01

- **OGASUN MINISTERIOA. – Tributuen eta aduanen kontrola.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 19koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, 2021eko Tributuen eta Aduanen Kontrolerako Urteko Planaren gidalerro nagusiak onesten dituen. **2021-1379 xedapena - 46 or.**
- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Aire segurtasuna.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 21koa, Garraioen eta Mugikortasunaren Idazkaritza Nagusiarena, Abiazio Zibilerako Segurtasun Programa Nazionalaren zati publikoaren eguneraketa onesten duena. **2021-1380 xedapena - 104 or.**

2021/02/03

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**
 - **Nekazaritza. Elikadura.** – Akats-zuzenketa, honako lege honena: 8/2020 Legea, abenduaren 16koa, premiazko zenbait neurri hartzen dituen nekazaritzaren eta elikaduraren alorrean. **2021-1528 xedapena - 1 or.**
 - **Premiazko neurriak.** - 3/2021 Errege Lege-dekretua, otsailaren 2koa, genero arrakala murrizteko eta beste gai batzuetarako neurriak hartzen dituen Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren alorrean. **2021-1529 xedapena - 28 or.**

2021/02/04

- **GORTE NAGUSIAK.**

- **Premiazko neurriak.**

- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila sektore turistikoari, ostalaritzari eta merkataritzari laguntzeko eta zerga gaietako premiazko neurriak hartzen dituen abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko erabakia. **2021-1612 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko erabakia. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko. **2021-1613 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila, etxebizitzaren eta garraioen alorrean, zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko erabakia. **2021-1614 xedapena - 1 or.**

- **Europar Batasuna.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila abenduaren 29ko 38/2020 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko erabakia. Horren bidez, neurriak hartzen dira Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua hirugarren estatuen egoerara egokitzeko, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegotik ateratzeko 2020ko urtarrilaren 31ko erabakian ezarritako trantsizio-aldia amaitu ondoren. **2021-1615 xedapena - 1 or.**
- **Finantza-neurriak.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila laguntza sozial eta ekonomikoko eta epaien betearazpenerako finantza-neurriei buruzko abenduaren 29ko 39/2020 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko erabakia. **2021-1616 xedapena - 1 or.**

- **OGASUN MINISTERIOA. – Tributu-prozedurak. Lankidetzaren erakundeak.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 18koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari esleitutako diru-bilketaren kudeaketan laguntzen duten entitateen bidez, zergak transferentzia bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak zehazten dituen. **2021-1617 xedapena - 9 or.**

2021/02/05

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.** – **Gizarte Segurantzaren.** - ISM/87/2021 Agindua, otsailaren 1ekoa, 2021erako Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak ezartzen dituen, bigarren eta hirugarren taldeetan dauden Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko langileentzat. **2021-1661 xedapena - 5 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/02/02

- **OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA.** - ERABAKIA, 2020ko abenduaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, erakunde zentralaren egitura aldatzen duena. **574 xedapena - 2 or.**

2021/02/04

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 13koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, foru dekretu-arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 11/2020 Foru Dekretu-Araua, 2020ko abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa. **619 xedapena - 1 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/02/01

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - 29/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 20koa, aldatzen duena Europar Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitortzearen 349 eredu eta haren diseinu logikoak eta hura aurkezteko tokia, modua eta epea onesten dituen maiatzaren 22ko 224/2020 Foru Agindua. **288 xedapena - 2 or.**

2021/02/03

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa. Onestea balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztuaren arautzea 2021erako. 293 xedapena - 40 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/02/02

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 179/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa. Honen bidez, aldatu egiten da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren martxoaren 6ko 570/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baitira Europar Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpena egiteko 349 eredua eta hura ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisikoak eta logikoak. 56 xedapena - 6 or.

2021/02/04

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 212/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 1koa. Honen bidez, tributu-eredu jakin batzuk telematikoki aurkezteko betebeharraren salbuespena garatzen da. 91 xedapena - 3 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/02/01

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 12/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzeko aplikatzeko. 186 xedapena - 1045 or.

2021/02/04

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 29/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 29koa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharreko 670, 671 eta 672 ereduak onesten dituenak. 585 xedapena - 25 or.

2021/02/05

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 20/2021 Foru Dekretu-Ebazpena, otsailaren 4koa, 2021eko otsailaren 5a eta 8a egun baliogabetzat hartzen dituen. **734 xedapena – 1 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO